


Literatura

Herriko bozak
Piarres Larzabal

Auspoa
1962



Hau deitzen da POLITIKA

TEATROA, daukagu erabat ahaztua. Nahiago nuke bakarrik hemen; aldiz ea nor doan gaur antzokira, are ea nork ateratzen duen testua irakurtzeko kuraia. Eta aitzitik ditugu teatro idazle azkarrak, Piarres Larzabal, aurten jaio zela mendea. Ibon Sarasolak: “Apaiz. Epe honetako autorerik hobere-na. Ehunen bat obraren egile”. Larzabalek konfirmazioa: “Uste dut ehun ta hogeit bat obra, handi eta tiki, luze eta labur idatzi izan ditudala”. Lehen ikusgarria, *Irri eta Negar*, gizon mozkor baten merkatutik etxera sartzea, *Gure Herria* aldizkarian argitaratzen zuena. 1934. Beste Piarres batek, Xarriton: “Irri eginarazteko xedea besterik ez dute hastapenean. Las-ter, irri eta negarren artetik, entzun-ikusleari zenbait gogoeta eginarazi nahi dizkio. Gizarte arazoak harrotzen dituzten komediak dira”. Xarritonen ustez Larzabalen larrienak: *Orreaga*, *Paper mende*, *Sarako lorea*, *Urriki latza* 1964an, gero *Lana eri*, *Suedako neskatxa* 1965ean, *Ibañeta* eta menturaz hobere-na, *Matalas* 1968an –Sarasolak berresten du azkena: “haren obrarik interesgarriena”–. Labur, Larzabalek berak idazlan osoen 6. liburukian dioena: “Otoi euskalduneri erakuts diezaiegun nolakoak diren eta direnarekin zer egin dezaket. Bizia lagun dezala teatroak, biziarekin kurrituz. Ikusliarrak bete ditza-gun ez bakarrik iragan ederraren penez, baina egite-ko denarentzat xede suharrez”.

Eta badakit lehenik departamendukoak direla, baina zer nahi duzue esatea: Matalasen bizitza eta mirariak baino, Ibañetako patriotismoaz bestera, puskaz gehiago gozatu dut udal hauteskunde-entzulan ari den *Herriko bozak* honekin. Pertsonaiak, bozetako egunetan ardo gorritik edaten duten gorriak batetik, zuritik edaten duten zuriak beste-tik. Bakoitza bere aldeko bozen bila. Gehi Pako mozkorra, noski: “Heldu da bozkatzeko tenorea, ez da orduan erregerik ni baino ohoratuagorik”; “Ha zein goxo den hola jaun handi batzuen, zure eskale bilakatuta, ikustea!”. Eta Kattalin, ostalertsu, auskalo nagusia, baina a ze jefa: “Politika egin behar dela nahi dut, bainan politika saltsa... Hani-tzentzat saltsan artzea da politika egitea”. Pakok, gorriak eta zuriak edan ondotik, sententzia: “Ber-din denek leher egiten ahal dute negatik”. Baina-ren bat jartzearen, zalantza izan dut pertsonaia batekin, burxoroa baita. Gertaldi oso bat ematen dute haren kontura iseka: “Zakurrak saingaz eta haurrak harrika lotu zaizko”. Halere, azken gertal-diak ahantzarazten dizkizu oro makurrak. Pakoren bozarekin, bozen kondaketarekin, bikaina. Ezen ondo baitio Kattalinek: “Ez izan beldur... Hau dei-tzen da POLITIKA”. ■

Aritz Galarraga



Liburu azoka

Laudion, martxoaren 20tik 29ra Lamuza plazan.

EUSKADIKO LIBURU GANBARA

- Euskal eta erdal nobedadeak
- Euskal musika
- %10eko beherapena

Bizi irakurriz!